

GAI ORGANIKOAREN KUDEAKETA BAZTANEN

PRENTSAURREKOA

Baztango Udalak Hondakinen kudeaketan pausuak ematen jarraitzen du Nafarroako Hondakinen kudeaketa planak eta Hondakinen Foru legeak markaturiko helburuak lortzeko bidean

Baztango Udalak Hondakinen kudeaketa hobetzen jarraitzeko asmoz, hasera batean 2 urteetarako izanen zen GAI ORGANIKOAREN KUDEAKETARAKO PLAN bat aurkeztu zuen 2018an. Plan honek 2 urte bete dituen ezohiko urte honetan balantzea egiteko unea iritsi dela uste dugu: aitzinera eramandako ekintzen berri eman, lortutako emaitzak zuekin elkarbanatu eta bide honetan aitzinera egiten jarraitzeko gure konpromisoa berretsi eta Baztandar guztiei helarazteko probestu nahiko genuke tarte hau.

Gai organikoaren kudeaketa planean lan ildo ezberdinak markatu ziren, guztiak azkenean gai organikoaren kudeaketa hobetu, frakzio hau bereiz biltzeko bideak erraztu, eta honekin hondakinen kudeaketa orokorra hobetzeko intentzior. Erran bezala, Nafarroako Hondakien Planak eta Hondakinen Foru legeak markaturiko helburuak betetzea zen asmoa, eta gaur egun ere hala izaten jarraitzen du, hau delarik Hondakin sailaren lan ildo nagusia.

Azken urte honetan ez ohiko konportamentuak izan ditugun arren, bi urte hauetan egindako lanaren balantzea positiboa izan dela erran dezakegu eta emandako **pausuen berri** emanen dizuegu jarraian:

- Hasera batean, 2019an, GAI ORGANIKOAREN SORTZAILE BEREZIEKIN egin zen lanketa. Sortzaile bereziak diogunean gai organikoa kopuru haundietan sortzen duten establezimentuetaz ari gara, hala nola: jatetxe. ostatu, supermerkatu, zahar etxe, arraindegi, harategi, etab. Horiek bisitatzeko “*akonpainamentuaz*” arduratuko zen empresa bat kontratatu zen laguntza gisa. Pertsona bat aritu zen Baztango sortzaile berezi guztiak bisitatu eta hauei gure planaren berri ematen, gai organikoa (eta gainerako frakzioak) bereiztearen garrantzia aipatu zitzaizen guztiei eta erraztasunak eta beharrezko materialak eman zitzaizkien beren establezimentuetan sorturiko hondakin organikoak ere bereizten hasteko konpromisoa eskatuz. Hauetako gehienei gaur egun hondakin organikoak kontenedore bidez biltzen zaizkie, bilketako kamioia astean hiru aldiz pasatzen delarik establezimentu hauetatik frakzio honen bila. Partehartzea haunditzeko establezimentuetara bisitak egin eta akonpainamentua egiteaz gain, bideo promozional bat egin zen, parte hartzaileei bezeroen aitzinean desberdindu ahal izateko beren establezimentuetan jartzeko pegatinak banatu zitzaizkien....
- 2020. Urte honetan eta erran bezala, arras ezhoiko urtea izanik denendako ere, ETXE eta AUZO KONPOSTA INDARTZEARI ekin diogu. Joan den 2019 eta 2020 urte honetan ere, hainbat auzo konpostagune egokitu eta bertze hainbat berri egin dira. Ekonomia zirkularra bultzatuz ontzien edukiontzietan bilduriko plastiko birziklatuarekin egindako etxolak eraiki dira. Anpliazio eta istalazio berri hauei esker, gai organikoa konposta bidez kudeatzeko aukera Baztango populazioaren %100era zabaltzea lortu da (Azpilkueta da momentuz kanpoan

geratu den herri bakarra, zabalkuntza egin zenean saneamentu obrekin ari zirelako). Diseminatuan bizi diren Baztandarrek edota etxean beren gai organikoa kudeatu nahi dutenek, etxeko konpostagailuak Udaletxean doan eskatzeko aukera izaten jarraitzen dute eta hala izanen da etorkizunean ere. Honekin, Nafarroako Hondakinen Foru Legeak 2022. Urterako bete beharreko helburua betetzea lortu dugu, hain zuzen ere, gai organikoaren %100eko despliege edo zabalkuntza egitea. 2020. urte honetan etxe eta auzo konpostaren erabiltzaileei jarraipena egiteko laguntza ere kontratatu du Udalak, zerbitzu hau behar bezala erabiltzen dela ziurtatu eta erabiltzaileei dituzten arazoak konpontzen laguntzeko helburuz hain zuzen.

- 2020. Urte honetan ere, Elizondoko eta Iruritako zenbait auzoetako barrideei gai organikoa kontenedore marroi bidez kudeatzeko aukera eman zaie, sortzaile berezien gai organikoaren bilketa beraien auzoetatik pasatzen zela probestuz. Beharrezko informazioa helarazi eta badira zenbait familia Baztanen jada gai organikoa ere horrela kudeatzen ari direnak.
- Azkenik, errefusaren kontenedoreen tapak ere mugatzen hasiak gara. Errefusa kontenedorean jaso beharko genituzkeen Hondakinak arras gutti izan beharko zirela eta hauetan traste haundiak sartu behar ez direla ikusirik ere, hauen ahoa mugatzeari ekin diogu aurten. Oroitarazi nahiko genuke hemen, 2018az geroztik zabortegira bideratzen dugun Hondakin tona bakoitzeko kanon edo penalizazio bat ordaintzen ari garela eta honek errefusaren kantitatea murriztearen garrantzia are gehiago indartzen du.

Emandako pausu guzti hauek bere ondorioak izan dituzte eta oraindik lan aunitz egiteko badugu ere, bide onetik goazela erraten ahal dugu **emaitzei begiratzen badiegu**:


BAZTAN		2018	2019	2020	HELBURUA
SORTZAILE BEREZIAK	DAUDEN SORTZAILE BEREZIEN KOPURUA	131	135	139	
	ZIRKUITU BARNEAN DAUDEN SORTZAILE BEREZIEN KOPURUA	85	85	86	
	BILKETAN IZENA EMANDAKO SORTZAILE BEREZIEN KOPURUA	19	79	79	
	PARTEHARTZE OSOA (%)	15%	59%	57%	
	BILKETA ZIRKUITU BARNEAN DAUDENEN PARTEHARTZE (%)	22%	93%	92%	70%
	KONPOSTEAN IZENA EMANDAKO SORTZAILE BEREZIEN KOPURUA	14	36	41	
	PARTEHARTZE KONPOSTAIAN (%)	11%	27%	29%	
	OSOTARA IZENA EMANDAKO SORTZIALE BEREZIEN KOPURUA	33	115	127	
	PARTEHARTZE OSOTARA (%)	25%	85%	91%	
	BILDUTAKO BIOHONDAKIN KOPURUA (iraila arte)	90,745	162,14	178,76	
	BILDUTAKOA Kg/bizt/egun	0,04	0,08	0,08	
	BILDUTAKOA Kg/SB/egun	0,003	4,40	4,71	

KONPOSTA FAMILIAK	OSOTARA FAMILIAK	2990	2990	2990	
	IZENA EMANDAKO FAMILIAK OSOTARA	1.000	1.093	1126	1.200
	IZENA EMANDAKO PERTSONAK OSOTARA (2,6pers/familia)	2600	2841,8	2927,6	
	PARTEHARTZE %	33%	37%	38%	
	KONPOSTATURIKO KANTITATEA OSOTARA (Tn)	132,02	144,30	144,70	
	KONPOSTATZEN Kg/bizt osotara/egun	0,05	0,05	0,05	
	KONPOSTATZEN Kg/familiak osotara/egun	0,12	0,13	0,13	
BIOHONDAKINAK	BILDUTAKO BIOHONDAKIN KANTITATEA (iraila arte)	222,77	306,44	323,46	
	JOAN DEN URTEAREKIKO BIOHONDAKINEN IGOERA	19%	38%	6%	
ERREFUSA	BILDUTAKO ERREFUSA KANTITATEA (Tn iraila arte)	1501	1415	1377	
	JOAN DEN URTEAREKIKO ERREFUSA MURRIZPENA	-1,00%	-6%	-3%	
	Kg/bizt/egun	0,53	0,50	0,49	
ONTZIAK	BILDUTAKO KANTITATEA (Tn iraila arte)	119,36	131,84	150,84	
	JOAN DEN URTEAREKIKO ONTZIEN IGOERA	2%	10%	14%	
	Kg/bizt/egun	0,04	0,05	0,05	

Nafar Gobernuak urtero publikatzen dituen datuen arabera, azken datuek (2019koak) bide onetik goazela adierazten digute baita ere:

- 2019an Baztanen etxe eta komertzioetako hondakinen %49 bereiz bildu genituen eta berrerabiltzeko prestatu eta birziklaturiko etxe eta komertzioetako Hondakinen portzentaia %65,8koa izan zen. Honen arabera 2020rako planteaturiko helburuak bete ditugularik (2020ko helburua %50ekoa da)
- Gai organikoari dagokionean, helburua betetzetik hurbil gaude, baina ez dugu lortu oraindik, 2019an Baztango biohondakinen %45a balorizatzea lortu genuen. Bide onetik goaz baina esfortzu bat egin behar dugu oraindik legeak eskatzen duen %50 horretara iritsi ahal izateko...
- Aurten bizi dugun egoera berezia kontutan izanik ere, sortzaile bereziek lan handia egin dute gai organikoaren bereizketa bide honetan. Grafikoan ikus daiteke azken urteotan bildutako gai organiko kantitatearen eboluzioa:

SORTZAILE BEREZIEI BILDUTAKO GAI ORGANIKO TONAK (urtarrila-iraila)



2019an egindako lanari esker Hondakinak zabortegiratzeagatik ordaindutako KANONari zegokion zenbatekoa baino gehiago berreskuratu ahal izan dugu "Hondakinen Funtsa" deituriko partidatik 2020. Urte honetan egin diren akonpainamentua, kontenedore erosketak, publikazioak eta bertze gisako ekintzak ordaindu ahal izateko.

Hurrengo urterako erronka eta planak.

Bide honetik goazela erran behar da eta hau posible egiten duzuen Baztandar guztiak zoriendu eta eskertzeko parada hartu nahi dugu hemen, baina oroitarazi nahi dizuegu ezin garela hontan gelditu, 2027. Urterako asmo haundiagoko helburuak ditugu bistan eta horietan pentsatuz jarraitu behar dugu gure bidea eta eguneroko lana.

Heldu den urtera begirako planteamentuak momentuz momentu azalduko baditugu ere, aurreratzen ahal dizuegu, bertzeren artean, honako asmoak ditugula:

- Gai organikoaren bilketaren zabaltzea
- Auzo konpostagunea jartzea Azpilkuetako herrian
- Errefusa kontenedoreak mugatzen joatea (tapa ttikiak jarritz piskanaka)
- Etxe eta auzo konpostaren segimenduaren jarraipena
-

Guzti honetan zuen parte hartzea, laguntza eta ulermena beharko ditugu, eta proiektu honetan Baztandar guztiak bidelagun izatea espero dugu aurrerantzean ere.

ESKERMILA!!!

GESTIÓN DE LA MATERIA ORGÁNICA EN BAZTAN

RUEDA DE PRENSA

El Ayuntamiento de Baztan continúa dando pasos en la gestión de residuos hacia la consecución de los objetivos marcados por el Plan de Gestión de Residuos de Navarra y la Ley Foral de Residuos

Con el objetivo de seguir mejorando la gestión de los residuos, el Ayuntamiento de Baztan presentó en 2018 un PLAN DE GESTIÓN DE LA MATERIA ORGÁNICA que inicialmente se prolongaría durante 2 años. Creemos que ha llegado el momento de hacer balance en este año extraordinario en el que este Plan ha cumplido 2 años: nos gustaría compartir con vosotros y vosotras las acciones llevadas a cabo, compartir los resultados obtenidos y ratificar nuestro compromiso de seguir avanzando en este camino y dar traslado de ello a toda la sociedad Baztandarra.

En el Plan de Gestión de la Materia Orgánica se marcaron distintas líneas de trabajo, todas ellas con el fin de mejorar la gestión de la materia orgánica, facilitar la recogida selectiva de esta fracción y con ello mejorar la gestión general de los residuos. Como ya se ha indicado, la intención era cumplir los objetivos marcados por el Plan de Residuos de Navarra y la Ley Foral de Residuos, y en la actualidad sigue siendo ésta la principal línea de trabajo del Departamento de Residuos del Ayuntamiento.

A pesar de que en el último año hemos tenido unos comportamientos poco habituales, podemos afirmar que el balance del trabajo realizado durante estos dos años ha sido positivo y os informaremos a continuación de los trabajos realizados:

- Inicialmente, en 2019, se trabajó con GRANDES GENERADORES DE MATERIA ORGÁNICA. Cuando hablamos de grandes generadores o generadores especiales nos referimos a establecimientos que producen gran cantidad de materia orgánica como son: restaurantes, hostales, supermercados, residencias, pescaderías, carnicerías, etc. Se contrató una empresa que se encargaría del “acompañamiento”. Una persona visitó a todos los grandes generadores de Baztan dándoles a conocer nuestro plan. A todos ellos se les comentó la importancia de separar la materia orgánica (y el resto de fracciones) y se les facilitó la información y los materiales necesarios para ello, exigiendo el compromiso de comenzar a separar los residuos orgánicos generados en sus establecimientos además del resto de fracciones que algunos ya separaban. Estos residuos orgánicos son actualmente recogidos mediante contenedores, las recogidas se realizan tres veces por semana. Además de realizar visitas de acompañamiento a los establecimientos participantes, se realizaron diversas acciones como un video promocional, reparto de pegatinas a los establecimientos participantes a fin de que las colocasen para poder diferenciarse ante sus clientes...
- Este año 2020 nos hemos dedicado al REFUERZO DEL COMPOSTAJE DOMÉSTICO Y COMUNITARIO. Durante los años 2019 y 2020 se han acondicionado varios puntos de compostaje comunitario ya existentes y se han habilitado zonas nuevas. Impulsando la economía circular se han construido casetas fabricadas con plástico

reciclado recogido en los contenedores de envases. Gracias a estas nuevas implantaciones y ampliación de las existentes, se ha conseguido el despliegue de la gestión de la materia orgánica mediante compostaje al 100% de la población del Baztan (Azpilkueta es la única localidad que de momento ha quedado fuera debido a las obras de saneamiento que se estaban realizando en el momento de la ampliación). Los vecinos y vecinas de Baztan que viven en diseminado o que quieren gestionar su materia orgánica en el hogar, siguen teniendo la posibilidad de solicitar gratuitamente los compostadores domésticos en el Ayuntamiento y así seguirá siendo en el futuro. Con este despliegue damos cumplimiento al objetivo propuesto para 2022 en la Ley Foral de Residuos de Navarra (despliegue total de la recogida de la fracción orgánica de los residuos municipales para 2022). Este año 2020 el Ayuntamiento ha contratado también la asistencia para el seguimiento de los usuarios del compostaje doméstico y comunitario, con el fin de asegurar la correcta utilización de este servicio y ayudar a los usuarios y usuarias a solucionar sus problemas.

- También este 2020, se ha ofrecido a los vecinos/as de Elizondo e Iruñeta la posibilidad de gestionar la materia orgánica mediante contenedores marrones, aprovechando que la recogida de materia orgánica de los grandes generadores pasaba por sus barrios. En Baztan hay familias que ya están gestionando la materia orgánica a través de este sistema después de haber recibido la información necesaria.
- Por último, también hemos empezado a delimitar las tapas de los contenedores de fracción resto. Los residuos que deberíamos recoger en el contenedor de la fracción resto deberían ser muy escasos y en estos contenedores no se deben introducir residuos voluminosos por lo que este año hemos empezado a delimitar las bocas de los mismos a fin de evitar estas malas prácticas. Nos gustaría recordar aquí que desde 2018 estamos pagando un canon o penalización por tonelada de Residuos que llevamos a vertedero y esto refuerza aún más la importancia de reducir la cantidad de residuos que recogemos en la fracción resto.

Todos estos pasos han tenido sus consecuencias y aunque todavía tenemos mucho trabajo por hacer, consideramos que vamos por buen camino si miramos los resultados obtenidos:


BAZTAN		2018	2019	2020	OBJETIVO
GRANDES GENERADORES	CANTIDAD DE GRANDES GENERADORES	131	135	139	
	GRANDES GENERADORES DENTRO DEL CIRCUITO	85	85	86	
	GRANDES GENERADORES APUNTADOS A LA RECOGIDA	19	79	79	
	PARTICIPACIÓN TOTAL (%)	15%	59%	57%	
	PARTICIPACIÓN DE LOS GG QUE ESTÁN DENTRO DEL CIRCUITO (%)	22%	93%	92%	70%
	GG APUNTADOS AL COMPOSTAJE	14	36	41	
	PARTICIPACIÓN EN COMPOSTAJE (%)	11%	27%	29%	
	GG APUNTADOS EN TOTAL	33	115	127	
	PARTICIPACIÓN TOTAL (%)	25%	85%	91%	

	BIORRESIDUOS RECOGIDOS (hasta septiembre)	90,745	162,14	178,76	
	RECOGIDO Kg/hab/día	0,04	0,08	0,08	
	RECOGIDO Kg/GG/día	0,003	4,40	4,71	
FAMILIAS COMPOSTAJE	FAMILIAS EN TOTAL	2990	2990	2990	
	FAMILIAS INSCRITAS EN TOTAL	1.000	1.093	1126	1.200
	PERSONAS INSCRITAS (2,6 pers/familia)	2600	2841,8	2927,6	
	PARTICIPACIÓN %	33%	37%	38%	
	CANTIDAD COMPOSTADA (Tn)	132,02	144,30	144,70	
	COMPOSTANDO Kg/hab totales/día	0,05	0,05	0,05	
	COMPOSTANDO Kg/familias total/día	0,12	0,13	0,13	
BIORRESIDUOS	CANTIDAD BIORRESIDUOS RECOGIDOS (hasta sept)	222,77	306,44	323,46	
	SUBIDA BIORRESIDUOS RESPECTO AÑO ANTERIOR	19%	38%	6%	
ERREFUSA	CANTIDAD FR RECOGIDA (Tn hasta sept)	1501	1415	1377	
	REDUCCIÓN FR RESPECTO AÑO ANTERIOR	-1,00%	-6%	-3%	
	Kg/hab/día	0,53	0,50	0,49	
ONTZIAK	CANTIDAD RECOGIDA (Tn hasta septiembre)	119,36	131,84	150,84	
	SUBIDA EELL RESPECTO AÑO ANTERIOR	2%	10%	14%	
	Kg/hab/día	0,04	0,05	0,05	

Según los datos publicados anualmente por el Gobierno de Navarra, los últimos datos de 2019 nos indican también lo afirmado hasta ahora:

- En 2019 la **recogida selectiva de residuos domésticos y comerciales** en Baztan fue de un **49%**, el porcentaje de **residuos domésticos y comerciales valorizados (preparación para la reutilización y reciclaje)** fue del **65,8%**. Cumpliendo con ello los objetivos de preparación para la reutilización y reciclaje del 50% planteados por el Plan de Residuos de Navarra 2017-2027.
- En cuanto a la **valorización de biorresiduos**, estamos cerca de cumplir el objetivo, pero todavía no lo hemos conseguido, en 2019 conseguimos valorizar el **45%** de los biorresiduos del Baztan. Vamos por el buen camino, pero todavía tenemos que hacer un esfuerzo para llegar al 50% que exige la ley...
- A pesar de la especial situación que vivimos este año, los grandes generadores han realizado una gran labor en esta vía de separación de la materia orgánica. En el gráfico se puede observar la evolución de la cantidad de materia orgánica recogida en los últimos años:

TONELADAS DE MATERIA ORGÁNICA RECOGIDA A GRANDES GENERADORES (enero-sept)



Gracias al trabajo realizado en el año 2019 hemos podido recuperar de la partida denominada “Fondo de Residuos 2020”, más del importe abonado correspondiente al canon de residuos por vertido de residuos. La subvención recibida por las buenas prácticas realizadas y los datos obtenidos ha servido para poder afrontar el acompañamiento, las compras de contenedores, publicaciones realizadas y demás.

Retos y planes para el próximo año.

Hay que decir que vamos por buen camino y queremos aprovechar la rueda de prensa para felicitar y agradecer a todas las personas Baztandarras que lo hacéis posible. Pero queremos recordaros a su vez que no podemos quedarnos aquí,. tenemos objetivos más ambiciosos para el año 2027 y debemos seguir trabajando a diario con el fin de conseguir estos objetivos y luchar por un entorno más sostenible y agradable en el que todos y todas tengamos cabida.

Aunque iremos informándoos de los nuevos proyectos sobre la marcha, podemos adelantar que entre otras cosas tenemos en mente las siguientes actuaciones:

- Ampliación de la recogida de materia orgánica
- Implantación del compostaje comunitario en el municipio de Azpilkueta
- Limitación de contenedores de fracción resto
- Seguimiento del compostaje doméstico y comunitario....

Como siempre necesitaremos de vuestra participación, colaboración y comprensión, y esperamos que nos sigáis acompañando y apoyando como lo habéis hecho hasta ahora.

ESKERMILA!!!

Baztan, 23 de diciembre de 2020

MIREN MEOKI. BAZTANGO UDALEKO HONDAKIN TEKNIKARIA.. hondakinak@baztan.eus 667808539.